

Fidagarritasunez jarduteko, ezinbestekoa da gure kolaboratzaileak konfiantzazkoak eta gertukoak izatea. Hori dela eta, elkarte desberdinekin elkarlanean arituko gara. Hurrengo hauek dira hautatu ditugunak eta horiekin ezarriko dugun harremana.

Elkartea	Deskribapena	Harremana
Ahislama Latinoamerikako Elkarte Hispanoa	Nazioarteko elkartasuna Latinoamerikako Hispaniar Elkarte honetan pertsonen interesak zaitzen proiektuak egingo dira. Sentsibilizazio- eta inpaktu-neurrien bidez, euskal gizarteari erakustea kultura-aniztasuna eta gizarte berri bat eratzen.	Elkarte honekin harremanetan jartzea funtsezkoa izango da sentsibilizazioa eta parte-hartze soziala pizteko eta euskal gizartearen eta Euskal Herrian bizi diren etorkinen taldeen eta elkarren arteko estimua, errespetua, elkarriketa eta elkarlanean errazten dituzten programa, proiektu eta jardueretan sustatu, antolatu, koordinatu eta elkarlanean aritzeko. Gainera, kurtsoak eskainiko dituzte laneratze prozesua sustatzeko, adibidez euskarazko kurtsoak eta sukaldaritza. Gure parte hartzaileen artean haien elkarte ezagutzea, ikusgarritasuna emateko.
Etorkinekin bat	Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, jatorri, bizipen eta sinesmen desberdineko pertsona-talde batek osatua. Ezagutzatik eta elkartruketik abiatuta, sentsibilizazio-, elkartasun-, salaketa- eta konpromiso-proiektu batean elkarrekin lan egitearen aldeko apustua egiten duena. Etorkinen bizikidetzaren plurala eta gizarteratzea zein laneratzea errazteko eta sustatzeko helburua du.	Bertara jotzen duten pertsonen, batez ere, laneratze prozesua aurrera eramateko jarduerak burutzen dituzte. Hori, gizarteratze prozesua emateko funtsezkoa da. Hala ere, aisialdia eta harremanak sustatzeko espazioa funtsezkoa da ere gizarte inklusibo bat lortzeko. Beraz, bertara jotzen duten parte-hartzaileak, guregana ere etor daitezke kalitatezko aisialdia zein harremanak sortzeko helburuarekin.

	Bertan, tailer ezberdinak burutzen dira, hala nola, “zaporeen espazioa” (arroces del mundo), teknologia-tailerrak eta orientazioa laneratze prozesuan.	Beraz, elkarteen arteko elkar-lan hori egotea baliagarria izan daiteke, parte hartzaileen garapen pertsonala osotasunean bermatzeko helburuarekin.
A Desalambrar-Ireki Mundua	Migratzaileen eta errefuxiatuen eskubideak defendatzea, eta gure kulturak eta haien garapen sozio-politikoaren elkarren artean ezagutzea. Kulturen arteko elkarriketa erraztuko duten gizarte-aldaketak sustatzea. Hainbat arrazoiengatik beren herrialdeak uztera behartuta dauden pertsonen bizi duten egoerari buruz sentsibilizatzea eta kontzientziazatzea. Migratzaileen eta errefuxiatuen alde lan egiten duten beste elkarte batzuekin lankidetzaren bideak irekitzea.	Elkarte honekin harremanetan jartzean, errefuxiatuei buruzko informazio aberasgarria eman ahal digute tailer desberdinak eginez, haien errealitateetaz jabetzeko. Aldi berean, gu haiengana jo dezakegu aisialdiko tailer desberdinak eskaintzeko.
Bizkaiko Elikagaien Bankua	Irabazi-asmorik gabeko elkarteak da eta pertsonen oinarritzko beharra betetzea du helburu, hau da, elikaduraren, eta janariaren xahubidearen aurka borrokatzea. Bankuak elikagaien bilketa bultzatzeaz gain, egoitzan biltegiratzen ditu eta azkenik ongizate-elkarteen artean banatzen ditu.	Ekitaldietatik soberan geratzen den janaria, zaborrera bota beharrean beraiei eskaintzen diegu.